



**LARRAULGO UDALA**  
(GIPUZKOA)

## Larraulgo Udalarekin harreman elektronikoa

2018.urte bukaerarako, ahal den neurrian behintzat, administrazioarekin izango den harremana elektronikoa izango da (eskaerak, jakinarazpenak...elektronikoak izango dira). Horretarako, Larraulgo Udalak, hainbat pauso ematen ari da.

Zerbitzu hau martxan jarri ahal izateko zuen posta elektronikoak beharko ditugu eta hau aprobetxatuz, asmoa dugu, udaletxeak prestatzen dituen bando, ohar etb. posta elektronikoaz zuei helaraztea.

Beraz, zerbitzu berri honen abantailaz gozatu nahi duzuenok ondoren zerrendatzen diren zerbitzuetan zuen baimena eman, posta elektronikoa jarri, orria sinatu eta udaletxean aurkeztu edo posta elektronikoz bidaltzea ([udala@larraul.eus](mailto:udala@larraul.eus)) animatu nahi zaituztegu.

**IZENA ETA ABIZENAK :**

	<b>BAIMENA ZERTARAKO DEN</b>	<b>POSTA ELEKTRONIKOA</b>
	Baimena ematen dut jakinarazpenak posta elektronikoaz jasotzeko	
	Baimena ematen dut bando, ohar eta udalak orokorrean bideratzen dituen idatziak posta elektronikoaz jasotzeko	

Larraulen, 2018ko apirilaren .....

Interesatuaren sinadura: .....

Eskatzaileak bere ardurapean aitortzen du dokumentu honetako datu eta sinadura guztiak egiazkoak direla. Ardura duen zerbitzuak beretzat gordetzen du baimen emaileen dokumentu originalak eskatzeko eskubidea eta, halaber, beharrezkoa den dokumentazio osagarria eskatzekoa, hala behar izanez gero.

Datu Pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, aditzera ematen dizugu emandako datuak Udal honetako jabetzakoa den fitxategian sartuko direla tratamendu informatikoa emateko. Halaber, jakinarazten dizugu zure datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta horien tratamenduari aurka egitekoa eskubideak erabili ditzakezula indarrean dagoen legerian aurreikusitako baldintzen arabera, Udal honetara bidalitako idazki baten bidez.